



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 24an

7 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:**

—Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldiko, Kontuen Ganbarak egina (Pág. 2).

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Lizarrako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.)
- II. Helburua (3. or.)
- III. Norainokoa (3. or.)
- IV. Iritzia (3. or.)
  - IV.1. Lizarrako Udala (3. or.)
  - IV.2. Erakunde autonomoak: Musika Patronatua (4. or.)
- V. Finantza-egoerako orriak (4. or.)
  - V.1. Egoera bateratuak (4 or.)
  - V.2. Udala (4 or.)
  - V.3. Erakunde autonomoak: Musika Patronatua (4. or.)
- VI. Lizarrako Udalari buruzko iritziak, ondorioak eta gomendioak (8. or.)
  - VI.1. 1998ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkinak (8. or.)
  - VI.2. Finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n (10. or.)
  - VI.3. Gorabeherak (11. or.)
  - VI.4. Langileak (11. or.)
  - VI.5. Administrazio kontratazioa (12. or.)

VI.6. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (14. or.)

VI.7. "2000 efektua" eta EUROan sartzeari buruz (15. or.)

VI.8. Hirigintza (15. or.)

**VII. Erakunde autonomoak (17. or.)**

VII.1. Julián Romano Musika Patronatua (17. or.)

**I. eranskina.** Udalaren organigrama 1998-12-31n (19. or.)

**II. eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (20. or.)

**I. SARRERA**

Lizarrako hiria Nafarroa erdialdean dago, Iruñetik 45 kilometrotara. 1998an 12.700 biztanle inguru ditu.

Bere jarduera burutu ahal izateko, ondoko erakunde autonomoak sortu ditu:

- Almodí Kultur Zentroko Patronatua
- Kirol Patronatua
- Gizarte Ongizateko Patronatua
- Musika Patronatua

Jurramendiko Mankomunitatean sarturik dago –horrexek egiten du ur-hornidurako eta zabor-bilketarako zerbitzuen erabateko kudeaketa– eta Lizarrerriko Turismo Partzuergoan parte hartzen du.

Erakunde autonomoen gastuak eta dirusarrerak, Musika Patronatuarenak izan ezik, Udalaren aurrekontuaren kitapenean sarturik daude. Ondoko laukian azaltzen dira Udalaren zein Musika Patronatuaren 1998ko zenbatekorik adierazgarriak:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	1.239	1.493	139 <sup>(1)</sup>
Musika Patronatua	22	20	12 <sup>(2)</sup>

(1) 33 lantegi eskoletako langileei dagozkie, 8 INEMekin egindako lankidetzari hitzarmenei lotutakoei eta 12 lan-eremuetako langileei.

(2) 10 aldizkako langile finkoak dira, eta 2 lanaldi partzialekoak.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Udalaren eta beronen erakunde autonomoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1998ko ekitaldiko gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudiak eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

a) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak bere azken fiskalizazio-txostenean, 1996ko ekitaldiari buruzkoan, emandako gomendioak zein neurritan bete diren.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen fiskalizazioa egin du, 1998ko ekitaldiari dagokiona.

Lizarrako Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka, eta bateraturiko kontabilitate-orriak dauzka, Udalari eta erakunde autonomo den Musika Patronatuari dagozkionak.

Beste hiru erakunde autonomoek (Almudí Taldeko Kultur Patronatua, Kirol Patronatua eta Gizarte Ongizateko Patronatua) ez dute aurrekonturik ezta kontu-likidaziorik egiten, eta euren gastu eta dirusarrerak Udaleko kontuetako atal ezberdinetan agertzen dira.

Lana dirusarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organok Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen eta Udalari alde aurretik igorritako galdetegiaren arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenean biltzen dira Lizarrako Udalaren eta haren menpeko Musika Patronatua erakundearen antolamendua, barne-kontrola, efikazia eta efizientzia hobetzeko beharrezko jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak.

Azterketa lana 1998ko ekainean eta uztailan egin da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

## IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko kontabilitateko egoerari aztertu ditugu, Udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean biltzen baitira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoren Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsirik arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

### IV.1. LIZARRAKO UDALA

#### IV.1.1. 1998ko aurrekontuaren kitapena

Honekin batera doan 1998ko aurrekontu bateratuaren kitapenak behar bezala erakusten du, bere alderdirik adierazgarrietan, zer egin den eta zein den abenduaren 31n aurrekontuaren

egoera. Kitapena indarra duen legeriarekin bat etorritz prestatu da.

#### **IV.1.2. Ondarearen egoera 1998ko abenduaren 31n**

Udal inbentarioa eguneratu gabe –azkena 1995ekoa da– eta kontabilitate balioekin berdinkatu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondarearen egoerari buruz.

#### **IV.1.3. Legezkotasuna**

Lizarrako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da; halere, administrazio-kontratazio arloan eta langileen arloan zenbaitetan indarreko araudia urratu da.

#### **IV.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera 1998ko abenduaren 31n**

Lizarrako Udalaren 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera garbia da; izan ere, diruzaintzako gerakin bateratua adierazgarria da –473 milioi pezeta–, eta aurrezki garbiko portzentajea, berriz, altua –ehuneko 14.

1998an 200 milioi pezetako kreditua eskatu da inbertsioak finantzatzeko.

#### **IV.1.5. Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioen jarraipena**

Oro har, 1996. urteari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke, langileria-arloko legediaren aplikazio estuari dagokionean izan ezik.

### **IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK: MUSIKA PATRONATUA**

Gastuen eta dirusarrerren aurrekontuaren kitapenak behar bezala erakusten du Patronatuaren jarduera, baina matrikuletako dirusarrerren erregistroan sortzapen-printzipioa aplikatu ez izanak 0,7 milioi pezetako dirusarrera-zuloa sortu du aurrekontuaren kitapenean.

Bestalde, adierazi egin behar da Patronatuaren eragiketak ez daudela kontuhartzailletza publikoari lotuta. 2000tik aitzina, dena den, Udalak berak kudeatuko du Patronatuaren kontabilitatea.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, Lizarrako Udalak bere aurrekontuak administrazio-ikuspegi-tik modu egokian kudeatzen dituela esan genezake, baina honako hauek beharrezko ditu:

- Udalaren kudeaketarako ezarritako ingurune informatikoa hobetzea.

- Kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako Urteko Txostena egitea.

- Langileria-arloko araudia hertsiki betetzea.

- Kirol, Gizarte Ongizateko eta Almodí Kultur Zentroko Patronatuen egungo egoera aztertzea eta argitzea, horiei araudian eta estatutuetan aurreikusitako autonomia emateko edo horiek desegiteko erabakia hartzeko, horien jarduera udal zerbitzuek bere bereganatuz.

- Musika Patronatuari dagokionez, beharrezkoa da haren benetako autonomia-maila zehaztea eta Udalak haren jardueraren gainean egin beharreko kontrol, esku-hartze eta zainketa mekanismo eraginkorrak ezartzea.

Ildo horretakoak dira txosten honetan jasotako gomendioak, eta gaur egun Udala horietako asko ezartzen ari da.

### **V. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK**

Jarraian, kontabilitateko egoera-orri bateratuak aurkeztuko ditugu, eta, horrekin batera, Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren aurrekontu-betetzea. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

#### **V.1. EGOERA BATERATUAK**

- Gastuen eta dirusarrerren 1998ko aurrekontu bateratuaren kitapena, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Gastuen 1998ko aurrekontu bateratuaren kitapena, kode funtzional/ekonomikoaren arabera.

- Egoera-balantze bateratua, 1998ko abenduaren 31n.

- Diruzaintzako gerakin bateratua, 1998ko abenduaren 31n.

#### **V.2. UDALA**

- Gastuen eta dirusarrerren 1998ko aurrekontuaren kitapena, kapitulu ekonomikoen arabera.

#### **V.3. ERAKUNDE AUTONOMOAK: MUSIKA PATRONATUA**

- Gastuen eta dirusarrerren 1998ko aurrekontuaren kitapena, kapitulu ekonomikoen arabera.

## Dirusarrerren 1998ko aurrekontu bateratuaren kitapena (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobratzeke	Betetzaren %	Aitorturiko %
Zuzeneko zergak	1	223.080	0	223.080	295.400	272.209	23.191	132	20
Zeharkako zergak	2	125.180	0	125.180	109.689	101.763	7.926	88	7
Tasak eta bestelako dirusar.	3	85.688	639	86.327	119.755	92.847	26.908	139	8
Transferentzia arruntak	4	572.249	2.865	575.114	574.199	521.263	52.936	100	38
Ondare bidezko dirusarrerak	5	7.100	0	7.100	14.040	9.750	4.290	198	1
Inbertsio errealak besterentzea	6	0	24.095	24.095	40.194	40.194	0	167	3
Kapital-transferentziak	7	20.000	108.804	128.804	155.833	58.660	97.173	121	10
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	0	269.594	269.594	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	0	331.932	331.932	200.000	200.000	0	60	13
<b>Dirusarrerak, guztira</b>		<b>1.033.297</b>	<b>737.929</b>	<b>1.771.226</b>	<b>1.509.110</b>	<b>1.296.686</b>	<b>212.424</b>	<b>85</b>	<b>100</b>

## Gastuen 1998ko aurrekontu bateratuaren kitapena (pezetak, milakotan)

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Ordainduta	Ordain-tzeke	Betetzaren %	Aitorturiko %
Langileen ordainsariak	1	539.466	4.908	544.374	517.236	513.139	4.097	95	41
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	340.894	43.696	384.590	342.530	322.753	19.777	89	27
Interesak	3	34.593	0	34.593	20.210	20.210	0	58	2
Transferentzia arruntak	4	52.795	500	53.295	25.559	20.725	4.834	45	2
Inbertsio errealak	6	23.500	689.474	712.974	322.974	291.239	31.735	45	26
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	42.049	-649	41.400	28.670	28.670	0	69	2
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.033.297</b>	<b>737.929</b>	<b>1.771.226</b>	<b>1.257.179</b>	<b>1.196.736</b>	<b>60.443</b>	<b>71</b>	<b>100</b>

## 1998ko aurrekontu bateratuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera (pezetak, milakotan)

Funtzio-nala	Deskribapena	Langileria-gastuak	Ond. arrun. eta zerb.	Finantza-gastuak	Transfer. arruntak	Inbertsio errealak	Kapital-transfer.	Finantza-aktiboak	Finantza-pasiboak	Aitor. obliga. guztira	Guzt. gainerako %
01	Zor publikoa	0	0	20.210	0	0	0	0	28.670	48.880	% 4
11	Gobernu-organoak	11.323	128	0	0	0	0	0	0	11.451	% 1
12	Administrazio orokorra	43.810	55.423	0	4.125	4.226	0	0	0	107.584	% 9
22	Segurtasun eta babes zibila	73.788	12.805	0	0	373	0	0	0	86.966	% 7
31	Segurtasun eta babes soziala	226.874	7.368	0	1.393	0	0	0	0	235.635	% 19
32	Gizarte-sustapena	58.352	27.094	0	0	0	0	0	0	85.446	% 7
41	Osasuna	0	8.829	0	0	0	0	0	0	8.829	% 0
42	Hezkuntza	25.663	6.351	0	47	844	0	0	0	32.905	% 3
43	Hirigintza	26.159	46.348	0	2.392	252.144	0	0	0	327.043	% 26
44	Komunitate-ongizatea	13.602	50.147	0	0	0	0	0	0	63.749	% 5
45	Kultura	27.664	109.562	0	5.369	65.390	0	0	0	207.985	% 17
46	Beste. komunitate-/gizarte.-zerb.	0	0	0	9.994	0	0	0	0	9.994	% 0
53	Nekazaritza azpiegiturak	0	2.554	0	0	0	0	0	0	2.554	% 0
61	Araupetze ekonomikoa	12.141	13.066	0	0	0	0	0	0	25.207	% 2
72	Industria	0	713	0	0	0	0	0	0	713	% 0
75	Turismoa	0	0	0	2.238	0	0	0	0	2.238	% 0
	<b>Guztira</b>	<b>519.376</b>	<b>340.388</b>	<b>20.210</b>	<b>25.558</b>	<b>322.977</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>28.670</b>	<b>1.257.179</b>	<b>% 100</b>
		<b>% 41</b>	<b>% 27</b>	<b>% 2</b>	<b>% 2</b>	<b>% 26</b>	<b>% 0</b>	<b>% 0</b>	<b>% 2</b>	<b>% 100</b>	

## Balantze bateratua, 1998-12-31n (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	Zenbatekoa	PASIBOA	Zenbatekoa
IBILGETUA	5.038.108	ONDAREA	3.846.320
Ibilgetu materiala	3.588.657	Ondarea	3.846.320
Lurrak eta ondasun naturalak	121.062		
Eraikinak	3.294.004		
Makineria, instalazioak eta tresneria	78.764	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	990.401
Garraio-elementuak	6.137	Kapital-dirulaguntzak	990.401
Altzariak	46.953		
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	39.242		
Bestelako ibilgetu materiala	2.495		
Ibilgetu ez-materiala	13.621	EPE LUZEKO ZORRAK	567.401
Bestelako ibilgetu ez-materiala	13.621	Jasotako maileguak	567.401
Inbertsioak eta erabilera orokorrerako ondas.	1.427.092	EPE LABURREKO ZORRAK	90.117
Lurrak eta ondasun naturalak	498.127	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak	60.443
Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondas.	189.865	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak	1.595
Herri-lurrak eta -ondasun naturalak	120.370	Entitate publikoak	15.210
Ondare historikoa	618.730	Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	445
Finantza-ibilgetua	8.738	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	12.403
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	776	Epe laburreko fidantzak	21
Epe luzerako maileguak	7.892		
Epe luzerako finantzak	70		
IZAKINAK	631		
ZORDUNAK	342.090	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	2.043
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak	336.789	Aplikatzeke dauden dirusarrerak	2.043
Entitate publikoak	5.301	Aplikatzeke dauden bestelako kontusailak	0
Beste hainbat zordun, aurrekontuz kanp.	0	EMAITZAK	274.650
FINANTZA-KONTUAK	426.085	Ekitaldiko emaitzak	274.650
Aplikatzeke dauden kontuak	0	PASIBOKO BESTELAKO KONTUAK	35.960
Kreditu-erakundeak eta bankuak	426.085	Formalizatzea	35.960
ORDENA-KONTUAK	296.299	ORDENA-KONTUAK	296.299
AKTIBOA, GUZTIRA	6.103.213	PASIBOA, GUZTIRA	6.103.213

## Diruzaintza-gerakinaren egoera 1998-12-31n

		Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
(+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak		+ 174.543
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	+ 212.424	
Dirusarrera-aurrekontukoak. Ixitako aurrekontuak	+ 124.365	
Merkataritza-eragiketetoak		
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak		
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetoak	+ 5.302	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	- 167.548	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren dirusar.		
(-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		- 128.125
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	- 60.443	
Gastu-aurrekontukoak. Ixitako aurrekontuak	- 1.597	
Dirusarrera-aurrekontukoak.	- 445	
Merkataritza-eragiketetoak		
Beste ente publiko batzuetako baliabideetakoak		
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetoak	- 63.595	
Gehi behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren dirusarrerak	- 2.045	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak		
(+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak		+ 426.085
Finantziario atxikia duten gastuei atxikitako gerakina		+ 217.384
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		+ 255.119
Diruzaintza-gerakina, GUZTIRA		+ 472.503

## Lizarrako Udala

## 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke
1. Langileria-gastuak	518.138	4.908	523.046	502.778	3.823
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	334.130	43.696	377.826	336.940	19.478
3. Finantza-gastuak	34.593	0	34.593	20.210	0
4. Transferentzia arruntak	54.787	500	55.287	27.551	4.834
6. Inbertsio errealak	23.000	689.474	712.474	322.849	31.735
9. Finantza-pasiboak	42.049	-649	41.400	28.670	0
Gastuak, guztira	1.006.697	737.929	1.744.626	1.238.998	59.870

## 1998ko dirusarrera-aurrekontua betetzea

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Gain harturikoa	Biltzeke
1. Zuzeneko zergak	223.080	0	223.080	295.400	23.191
2. Zeharkako zergak	125.180	0	125.180	109.689	7.926
3. Tasak eta bestelako dirusar.	74.142	639	74.781	105.954	26.908
4. Transf. arrunten bidezko dirusar.	557.195	2.865	560.060	572.168	52.936
5. Ondare-dirusarrerak	7.100	0	7.100	14.020	4.290
6. Inbertsioak besterentzea	0	24.095	24.095	40.194	0
7. Kapital-transferentziak	20.000	108.804	128.804	155.833	97.173
8. Finantza-aktiboak	0	269.594	269.594	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	331.932	331.932	200.000	0
Guztira	1.006.697	737.929	1.744.626	1.493.258	212.424

## Musika Patronatua

## 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke
1. Langileria-gastuak	21.328	0	21.328	14.458	274
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.764	0	6.764	5.590	299
4. Transferentzia arruntak	1.992	0	1.992	1.992	0
6. Inbertsio errealak	500	0	500	125	0
Gastuak, guztira	30.584	0	30.584	22.165	573

## 1998ko dirusarrera-aurrekontua betetzea (pezetak, milakotan)

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Gain harturikoa	Biltzeke
3. Tasak eta bestelako dirusar.	11.546	0	11.546	13.801	0
4. Transf. arrunten bidezko dirusar.	19.038	0	19.038	6.015	0
5. Ondare-dirusarrerak	0	0	0	20	0
Guztira	30.584	0	30.584	19.836	0

**VI. LIZARRAKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.1. 1998KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKINAK**

• Gastuen eta dirusarreraren 1998ko aurrekontu bateratuan 1.033 milioi pezetako hasierako kreditua azaltzen da; gero, ordea, gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-aldaketak gertatu dira, batez ere aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina -243 milioi- gehitu delako eta inbertsioak egiteko kredi-

tu-osagarriengatik -446 milioi-. Inbertsio horiek 200 milioiko kreditu batekin, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin eta inbertsioak besterenduz finantzatuko dira gehien bat.

• Horrenbestez, behin betiko aurreikuspena edo aurrekontu bateratua 1.771 milioi pezetakoa da.

• Aitorturiko obligazioek 1.257 milioi pezeta egiten dute; betetze maila ehuneko 71koa da, eta halakoa izan da, batik bat, inbertsioen kapitulua-



ren betetze mailarengatik –ehuneko 45, hau da, 389 milioi gutxiago inbertsioetan<sup>(1)</sup>.

Portzentajea honela banatzen da:

Gastuak	Portzentajea
Funtzionamendua	70
Inbertsioa	26
Finantza-zama	4
Guztira	100

Ikusten den bezala, gasturik handiena funtzionamenduari dagokio –langileak, ondasunak eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatutakoaren ehuneko 70 hartzen baitu –langileentzako ehuneko 41 erabiltzen du–. Finantza-zamak ehuneko 4 egiten du; portzentaje hori ez da batere altua ekitaldi honetan, 1998an kontraturiko 200 milioi pezetako kredituaren amortizazioa eta interesak 1999an hasiko baitira ordaintzen.

Aitorturiko eskubideek 1.509 milioi pezeta egiten dute, eta betetze maila ehuneko 85ekoa da. Hori hala da, gehien bat, finantza-pasiboen aldatetaren kapituluaren betetze mailarengatik –aurreikusitako zenbatekoa 332 milioi pezetakoa da, eta zenbateko erreala, aldiz, 200 milioi pezetakoa; betetze maila, hortaz, ehuneko 60koa izan da– eta zeharkako zergen kapituluaren betetze mailarengatik –aurreikusitako zenbatekoa 110 milioi pezetakoa da, eta zenbateko erreala, aldiz, 102 milioi pezetakoa; betetze maila, hortaz, ehuneko 88koa izan da–. Gainontzeko kapituluetan, betetze maila ehuneko 100ekoa edo gehiagokoa da.

Ondokoak dira portzentajeak:

Dirusarrerak	Portzentajea
Tributu bidezkoak	34
Transferentzia bidezkoak	49
Ondare bidezkoak	17
Guztira	% 100

1998ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia, hortaz, transferentzia bidezko dirusarrerak dira –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko 49 datoz finantza-iturri horretatik; tributu bidezko dirusarrerak, aldiz, ehuneko 34 egiten dute.

Ondoko laukian tributu mota nagusiak eta 1998an horiengatik aitorturiko zenbatekoak (milioi pezetatan) azaltzen dira:

Tributu mota	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	167
Landalur kontribuzioa	1
I. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	106
I. Lursailen balio igoeraren gaineko zerga	21
I. Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga	44
I. Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	57
Kirol instalazioak	6
Telefónica-ren kanona	8
Hirigintza-lizentziak	9
Irekitze-lizentziak	1

Nabarmena da hirilur kontribuzioaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren pisua, ekitaldian aitorturiko eskubideen ehuneko 18 egiten baitute.

1998ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga berandu kudeatu zen, eta hortaz, zerga hori 1998an erregistratu da. Hori dela-eta, 52 milioi pezeta inguru gehiagoko dirusarrerak izan dira 1998an.

Udalak ez ditu ordainarazten luxu gastuen eta bete-gabeko etxebizitzaren gaineko zergak, nahiz eta, indarreko legeriarekin bat, udal entitateak aukera hori izan. Adierazi digutenez, ondokoak dira ez ordainarazteko arrazoiak: lehenengoaren kasuan, horri lotutako jarduera gutxi dagoela udalean, eta bigarreanean, berriz, zaila dela hori ezartzea eman ditzakeen etekinekin konparatuz gero.

Aplikaturiko banaketa orokorreko sistema den bezalakoa delako, 1998ko laugarren hiru hilekoari dagokion Telefónica-ren kanona –1,4 milioi pezeta– 1999an kontabilizatu da, eta, berriz, 1997ko laugarren hiru hilekoari dagokiona –1,9 milioi pezeta– 1998an erregistratu da.

Udalak zerbitzuen kostuari buruz egindako ekonomi azterlanaren arabera, Udalak ematen dituen hainbat zerbitzutan ez da kostua estaltzeko adina diru biltzen. Hala gertatzen da, esate baterako, frontoia erabiltzeko tasarekin, Almuñi tasarekin eta, batez ere, garabi zerbitzuarekin.

1998ko betetze-egoera bateratuak 252 milioi pezetako aurrekontu-superabita du, aitorturiko eskubide eta obligazioen arteko aldearen ondorio dena. Saldo horretan, 1997ko gerakina gehitzetik eta finantziario-desbideratzetik sortzen diren doikuntzak eginez gero, ekitaldiko aurrekontu-emaitza 248 milioi pezetakoa da.

(1) 1999an zehar burutuko dira batik bat.

1998ko abenduaren 31n, ordaintzeke zeuden kopuruak –gastuen erresultak– 62 milioikoak ziren; horietatik, 1,5 milioi aurreko ekitaldietakoak ziren. Kobratzeke zeuden kopuruak –dirusarreraren erresultak– guztira 336 milioikoak ziren; jatorria aurreko ekitaldietan zeukatenak ehuneko 124 ziren, eta 167,5 milioi pezeta kobratzen zail jotzen dira.

1998ko abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 473 milioikoa zen<sup>(2)</sup>. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke zeuden 128 milioiko zorrak; kobratzeke zeuden 175 milioiko dirusarrerak eta 426 milioiko fondo likidoak. 167,5 milioi pezeta kobratzen zail jotzen dira. Hona diru horren iturri nagusiak: 6 hilabetetik goitiko zor kobratu gabeak eta ekitaldia itxitakoan kobratzeke dauden isunen ehuneko ehuna. Une honetan, 40 milioi kobratu dira zor horretatik.

Ondoko laukian, gastuen 1998ko aurrekontu bateratuaren betetzearen portzentajea azaltzen da, funtzioen arabera sailkatuta:

Deskribapena	Portzentajea
Zor publikoa	4
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	9
Segurtasuna eta babes zibila	7
Segurtasuna eta gizarte babesa	19
Gizarte sustapena	7
Hezkuntza	3
Hirigintza	26
Ongizatea	5
Kultura eta kirola	17
Ekonomia-araubidea	2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Aipatzekoa da Udalaren 1998ko gastuaren ehuneko 85 Hirigintza, Gizarte babesa, Kultura eta kirola, Administrazio orokorra, Babes zibila eta gizarte sustapenean metatzen dela.

## VI.2. FINANTZA-EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Ondokoak dira Udalak 1998an azaltzen dituen ratio edo adierazleak –1997ko datuekin alderatuta:

Adierazleak	1998 <sup>(1)</sup>	1997 <sup>(1)(2)</sup>
Biztanleko dirusarrerak (pezetatan)	118.331	103.097

(2) 1999ko aurrekontuari gehitu zaion gerakina.

Biztanleko gastuak (pezetatan)	98.629	95.678
Biztanleko finantza-zama (pezetatan)	3.823	4.408
Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak (pezetatan)	41.045	32.019
Kobraketen betetzea (ehunekoa)	86	75
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	95	90
Zorpetze maila (ehunekoa)	4	6
Zorpetze muga (ehunekoa)	19	12
Aurrezki garbia (ehunekoa)	14	6
Langileen indizea (ehunekoa)	41	39
Inbertsioen indizea (ehunekoa)	26	28
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	49	67

(1) Kalkuluak egitearren, 1998ko urtarrilaren 1eko errolda hartu da 1997rako –12.687 biztanle–, eta 1998ko bukaera aldeko errolda 1998rako –12.787 biztanle.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Hona azterketa horretatik zer nabarmentzen dugun:

- Igo egin dira biztanleko gastuak eta dirusarrerak, baina igoyeraren proportzioa ehuneko 15ekoa izan da dirusarreretan, eta ehuneko 3koa, aldiz, gastuetan. Hortik letorke, hain zuzen ere, superabitaren igoera.

- Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 28 igo dira, batez ere 1998an sartu direlako osagarri gisa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 1997ko dirusarrerak –52,4 milioi pezeta.

- Biztanleko finantza-zama aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 13 jaitsi da. Hori hala izan da jaitsi egin direlako interesak –amortizatu gabeko mailegu zaharretan nagusienak behera egin du– eta interes-tasak. 1998an kontraturiko kredituaren amortizazioa eta interesak 1999an hasi dira ordaintzen, eta, hortaz, ez diote ekitaldi honetako adierazleari eragiten.

- Dirusarrera arruntan gaineko aurrezki garbieraren portzentajea ehuneko 14koa da 1998an. 1997an, aldiz, ehuneko 6koa zen. Hobekuntza gertatu da dirusarrera arruntak igo eta finantza-zama gutxitu delako, eta horrek ekarri du zorpetze-maila jaitsi eta zorpetze-muga igotzea.

- Langileen indizea igo da, eta inbertsioena, berriz, jaitsi.

- Udalaren baliabideen ehuneko 49 dirulaguntzek egiten dute. Horrek dirulaguntzekiko menpekotasun handia erakusten du, nahiz eta 1998an portzentaje hori ehuneko 27 gutxitu den aurreko ekitaldiarekiko, hiru urteko planari zegozkion transferentziarik gehienak 1997an jaso baitziren.

Hona 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera (milioi pezetatan):

Adierazleak	1998
Diruzaintzako gerakina	473
Epe luzerako zorrak	525 <sup>(*)</sup>

(\*) Egoera balantzean 567 milioi pezetako zorra azaltzen da. Epe motzerako zor bihurtu dugu epemuga 1999an zuen zatia -42 milioi.

1998ko abenduaren 31n ordaintzeke daude inbertsioak finantzatzeko eskatu diren 2 kreditu eta 5 mailegu, epemuga 2013an dutenak.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Lizarrako Udalaren 1998ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte bera duten udalen 1997ko batez bestekoa<sup>(3)</sup>.

Ratioak	10.000-50.000 biztanle bitarteko udalak, 1997	Lizarra, 1998
Biztanleko gastu arruntak (pezetatan)	80.258	71.128
Biztanleko dirusarrera arruntak (pezetatan)	99.772	87.360
Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak (pezetatan)	54.593	41.045
Zorpetze muga	23%	19%
Zorpetze maila	7%	4%
Zorpetze ahalmena	16%	15%

Konparazio horren mugak gorabehera<sup>(4)</sup>, adierazgarriena da Lizarrako per cápita dirusarrerak eta gastuak maila beretsuko udalen batez bestekoa baino zertxobait azpitik daudela, baina, halere, zorpetze maila txikiagoa da.

### VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, hauexek dira ebatzi beharreko errekurtsorik behinenak:

- Administrazioarekiko sei auzi-errekurtso, zergak eta tasak kitatzeari, MUGAren kudeaketa esleitzeari eta bestelakoei buruzkoak. Horietarik bitan, Udalak paratu du errekurtsoa obren lizentziak kitatzea dela-eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenen aurka.

- Administrazioarekiko hiru auzi-errekurtso, hirigintza alorrekoak. Horietan Udala da demandatua.

- Administrazioarekiko hiru auzi-errekurtso, trafikoko zehapenei eta zaraten gaineko araudiari buruzkoak. Horietan Udala da demandatua.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Udalak 1993ko ekitaldian hirilur kontribuzioa ordainaraztearen aurka. Errekurtso hori 1999an baietsi zen.

- Nafarroako Gobernuak Udalaren aurka paratu zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, 1994ko urriaren 5ean hartutako erabakiaren aurkakoa. Haren bidez, Udalak aitortu egiten zien bost langileri lan-kontratudun finkoen izaera. 1999ko maiatzaren 20an emandako epaiak erabaki hura baliogabetu du. Udalak 1999ko plantilla organikoa argitaratu du, eta bertan, behin-behineko langile gisa sartu ditu bost pertsona horiek, bai eta horiei dagozkien lanpostu finkoak urte horretako lan eskaintzan sartu ere.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, C mailan dagoen udaleko funtzionario batek paratua, B mailara aldatzeko eskatzen baitu.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, E mailan dagoen funtzionario batek paratua. D mailara aldatzeko eskatzen du, bai eta 1995 eta 1996ko ekitaldietako lansarietako aldea -423.570 pezetan ordain diezaiotela ere.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Horren bidez, Udalak impugnatu egin zituen 1991ko urriaren 1a eta 1995eko ekainaren 30a bitarteko lan ikuskaritzaren aktak -7.397.716 pezeta, hiru langileren ordainsariei buruzko Gizarte Segurantzako kuotei dagozkienak. Hiru langile horiek, udalaren arabera norberaren konturako langileak baitziren, aldizkako langile finkotzat jo zituen lan arloko epaitegiak 1995eko otsailaren 9an. Udalaren abokatuaren ustez, ez dago garbi zer ebatziko den errekurtso hori dela eta.

Azkenik, 1998ko abenduaren 31n, udalak bete beharreko zerga guztiak ikuskatzeko moduan daude, eta hortaz, behin betiko kitapena egiteke dago.

### VI.4. LANGILEAK

1998ko abenduaren 31n, ondokoek ematen zituzten zerbitzuak:

(3) Toki Administrazioako Departamentuak igorri eta Kontuen Ganbarak Toki Sektore Publikoari buruzko 1997ko txostenean argitaraturiko datuak.

(4) Zerbitzu publikoen kalitatea eta horiek eskaintzeko moduak aipatu behar dira bereziki.

Mota	Kopurua, Udala	Kopurua, Musika Patronatua
Funtzionarioak	69	0
Lan-kontratudun finkoak	6	10
Aldi baterako lan-kontratudunak		642
Guztira	139	12

1998ko abenduaren 31n dauden lanpostuak 1. eranskineko organigraman azaltzen dira.

Funtzionarioak halaxe banatzen dira: ehuneko 14 A eta B mailakoak dira, eta ehuneko 38 –multzorik handiena beraz– D mailakoak.

1998ko ekitaldirako plantilla organikoa 1998ko martxoaren 5ean egindako osoko bilkuran onetsi zen, ekitaldiko aurrekontuaren onespentetik bereizita betiere.

1997ko plantilla organikoan, lan-kontratudun finko gisa azaltzen dira ordura arte behin-behinekoak ziren bi langile, egin beharreko hautaprobak egin gabe eta nahiz eta udal idazkariak horrezaz ohartarazi. Egoera hori bera gertatu da 1998 eta 1999ko plantilletan.

1999ko plantillan, funtzionario gisa azaltzen dira bost langile, 1994an osoko bilkuran hartutako erabaki batek behin-behineko langile horiek finko bihurtu zituelako, eta 1995ean, berriz, funtzionario –hautaprobak egin gabe–. Erabaki horiek balio gabetu egin dituzte Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren epaiek, eta epai horiek aplikatuz, langileok behin-behineko gisa azaltzen dira, eta euren lanpostu hutsak 1999ko lan eskaintza publikoan sartu dira. Une honetan, abian da oposizio-lehiaketa.

Kontuhartzaitza lanak, 1994an osoko bilkurak hartutako erabaki bati jarraiki, funtzionario batek betetzen ditu behin-behinekoz.

Udalbatzako kideen ordainsariak aurrekontuarekin batera onesten dira. Alkateari bai, baina gainontzeko kideei ez zaie ezer atxikitzen ordainsarrietan, osoko bilkurak ordainsari horiek gastuzat hartzeko erabaki baitzuen. Alkatearen ordainsariak oso-osorik lotzen zaizkio PFEZri eta horren atxikipen sistemari.

Montepioen araubideari lotutako funtzionarioen nominen azterketan ikusi dugunez, "Hileko" izeneko kontzeptu bakarrean biltzen dira oinarritzko soldata, antzinasuna eta gradua, eta beraz, ez dira horiek zehazten.

Gizarte Segurantzaren araubideari lotutako funtzionarioen ordainsarien aurrekontua sailkatzean, Udalak 13. artikuluan sartzen ditu ordainsari horiek, hau da, lan-kontratudunei buruzko artiku-

luan, eta ez funtzionarioei buruzkoan. Egoera hori konpondu egin da 1999ko aurrekontuan.

Gizarte Segurantzari kotizatzearen ondorioetarako, Udalak, bere jarduerak burutzeko, zortzi patronal-zenbaki dauzka.

Hori guztia ikusita, hauxe gomendatzen dugu:

- *Nominak eta lan-kontratupeko langileen kontratuak kanpoan egiten jarraitzearen komenigarritasuna aztertzea.*

- *Alde batera utzita nominak egiteko erabiltzen den modua –barnean nahiz kanpoan egin–, horiek egoki egiten direla bermatuko duen prozedura bat ezartzea, haiek egiaztatzeko eta haien barnekoherentzia bermatzeko behar diren tresnak erabiliz.*

- *Plantilla organikoa ekitaldia hasi baino lehen eta aurrekontuarekin batera onetsi eta argitaratzea.*

- *Udal kontuhartzaitzaren egoera behin betikoz konpontzea.*

- *Gizarte Segurantzari kotizatzearen ondorioetarako, Udalak bere jarduerak burutzeko dituen patronal-zenbakiak murriztea.*

- *Lansari-kontzeptu guztiak zehaztea monte-pioen araubideari lotutako funtzionarioen nomine-tan.*

- *Udalbatzako kideei osoko bilkuretan eta batzordeetan parte hartzeagatik egindako ordain-ketak PFEZko atxikipen sistemari lotzea aztertzea.*

## VI.5 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal hau banatu egin da: alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntu; bestetik, inbertsioak.

### VI.5.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Egindako azterketaren ondorioz, hauxe ikusi dugu:

a) Osoko bilkurak hala erabakita, zezen ikuskitzuen esleipena zuzenean egin zen, eta hala, ez dago aldean arteko kontraturik. 1998ko gastuak, gutxi gorabehera, 7, 3 miliotakoak dira. 1999an 5 urterako esleipena egin da.

b) Katastroko datuen mantenimenduaren zerbitzuak, lehiaketa bidez esleitu baitzen, ez du kontratu-euskarririk. Zerbitzu horrek 2,3 milioi pezeta-ko gastua izan du 1998an.

c) Garbiketa zerbitzua zazpi urtetarako esleitu zen 1992an, eta hortaz, zerbitzu ematea 1999ko otsailaren 1ean bukatu zen. Esleipena zuzenean egin zen, zerbitzu ematea arautzeko baldintza-plegurik, publizitaterik eta konkurrentziarik gabe. Jaietako garbiketa ezohikoa hartzaile berari esleitzen zaio 1993tik aitzina. Osoko bilkurak, bestalde, aho batez onetsi zuen 1996ko ekainaren 6an zerbitzua pertsona batek gehiagok osatzea. Egoera arautzearen, 1999ko otsailaren 4an egindako osoko bilkuran 8 urtetarako esleitu zitzaion lehen-go enpresa hartzaileari, lehiaketa egin ondotik, garbiketa zerbitzua –1999ko otsailaren 16tik aitzina–. Aurrekontua 42 milioi pezetakoa da urtean.

d) Aldeen arteko kontraturik gabe egiten da zerbitzu informatikoa (materialen hornidura eta mantenimendua). 1998ko gastua 17 bat milioikoa izan da (horietatik zati bat aurreko ekitaldiari dagokio).

e) Langileen nominak kanpoko aholkularitza-bulego batek egiten ditu hainbat urtetatik hona, batere kontraturik eta zerbitzua eman ahal izateko eskintza publikorik gabe.

f) Informazioa emateko afixak jarri zituen enpresak –1995a baino lehen jarri ziren– horien merkataritza-ustiapena egiten du iragarkiak jarriz, nahiz eta ez den jasota ageri Udalak horretarako lizentziarik eman duenik.

g) Jaietako musika orkestra eta beste ikusizun batzuk ere kontraturik gabe egin dira. Aitorturiko obligazioen euskarri bakarra fakturak dira.

h) Lizarrako Eskualde Ospitalerako garraio-zerbitzuei eta eskola-garraioari dagokienean, oraindik ere baldintza-orrien edo zerbitzu horiek ematen ari den enpresarekin sinaturiko kontratuen bidez arautu gabe dira. Udalak dioenez, auzi horri konponbidea emanen bide dio etorkizunean eskualdeko garraio proiektuak.

i) Ibilgailuen kaleko aparkamenduaren mugapen eta antolamendua (ORA) azpikontratatzeko espedientearen azterketa egin eta gero, hauxe nabarmendu nahi dugu:

1. Espedienteari presako tramitazioa eman zaio, nahiz eta espedientearen ez den jasota ageri horretarako arrazoirik.

2. Ez da garbi azaltzen zergatik esleitu zaion zerbitzua enpresa hartzaileari, hasi aurreko proba egin zuen enpresari alegia.

Horiek horrela:

*Gure gomendioa da kontratazio araudia estu aplikatzea.*

### VI.5.2. Lurrak saltzea

Aktak ikuskatu eta gero, hauxe ikusi dugu: 1998an hainbat jarduketa egin ziren, udal aparkalekuaren azpian ibilgailuentzako lur azpiko aparkalekua egiteko obrekin zerikusia dutenak, hala nola lur horiek zuzenean besterentzea. Eman zaigun dokumentazioaren arabera, hauxe baieztatu dugu:

- Besterendu beharreko lurrak erabilera publikokoak ziren, eta saldu aurretik ondareko lur gisa kalifikatu beharra zegoen. Saldu ziren egun berean, hots, 1998ko abenduaren 29an desafektatu zituen behin betikoz osoko bilkurak.

- Lurren kalifikazioa aldatzeko hasierako onepena baldintza juridiko, tekniko eta ekonomikoen pleguak onesteko egintza berean egiten da.

Jarduketa hori justifikatzen da obra herriko jaiak baino lehen bukatu behar direlako aitzakiarekin.

### VI.5.3. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak berraztertu dira –alde batera utzita haiek zenbait urtetako aurrekontuei egotzi behar zaizkien:

Espedientea	Esleipen prozedura	Gastua, 1998(*)
Santiago plaza (97ko hirurteko plana)	Enkantea	169
Aisiako zentroa eraikitzea (zinemak)	Lehiaketa	30
Gaztetxea eraikitzea	Enkantea	0
Gaztetxea eraikitzea-Hainbat obra	Zuzenean	21

(\*) Obraz gainera, teknikarien lansarien kostua ere, halakorik izanez gero, biltzen du.

Berrazterturiko espedienteek ekitaldiko obligazioen ehuneko 68 egiten dute.

Ondotik, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azaldu ditugu:

- Aztertutako kontratazio espedienteetako akats komunak:

a) Proiektuak eta obra-zuzendaritza zuzenean agintzen dira, publizitaterik eta kontratazio espedienterik gabe.

b) Ez da jasota ageri zergatik jotzen diren presakotzat prozedurarik gehienak.

c) Ez da egiten obrak hasi eta bukatzeko epeen gaineko kontrol esturik, eta, berandutzea gertatuta ere, ez da pleguetan hori dela-eta aurreikusitako zehapenik ezartzen.

d) Ez da aldaketa-espedienterik izapidatzen.

• Obra zehatzak. Aztertutako espedienteetako alderdirik adierazgarrienak emanen ditugu ondoren:

a) Aisiako zentroa eraikitzea (zinemak). Hauxe nabarmentzen dugu:

1. San Benito komentuari hegoaldean daude zinemak. Hasiera batean Nafarroako Gobernuarekin ziren lursail horiek, baina 1998ko abenduaren 1ean Lizarrako Udalari laga zizkion. Zerbitzuen zeharkako kudeaketa eta obra esleitzeko prozedura lagapen erabaki horren aurretik hasi zen.

2. Aisiako zentroaren zeharkako kudeaketaren lizitazioan, aisiako zentro osoaren "Oinarrizko proiektua eta txosten teknikoa" aurkeztu behar dute lizitatuzaileek, haren kudeaketa integrala baita lehiaketaren xede. Udalean ez dago horren aurre-proiekturik.

3. Espedientean ez da jasota ageri behin-behineko onarpen-akta, eta ezta ere, hortaz, obrak bukatu izanarena, nahiz eta zinemak inauguratu eta jendearentzako zabalik dauden. Halaber, 1999ko ekainaren 11n sinatu da kontratua zinemaren zeharkako kudeaketaren enpresa hartzailearekin.

b) Gaztetxea eraikitzea (obra nagusia): obra nagusiaren aurrekontua 179 milioi pezetakoa zen. Esleipena 162 milioi pezetatan egin zen. Halere, obrak ez ziren hasi ere egin, zeren, 1999ko apirilaren 13ko bilkura informatiboan aditzera eman zen legez, hartzaileak uko egin baitzion obra egiteari. Bilkura berean orobat erabaki zen kontratazio espedientea bertan behera uztea —erabaki hori ez du osoko bilkurak berretsi.

c) Gaztetxearekin zerikusia duten beste obra batzuk:

1. Gaztetzeko eustorma eraikitzea: egun berean onetsi ziren obra kontratatzekeko pleguak eta obraren esleipena —1996ko abuztuaren 1a—; horrek garbi erakusten du ez zirela gutxieneko hiru eskaintzak eskatu eta esleipena zuzenean egin zela. Obraren kostua 7,3 milioikoa izan da.

2. Gaztetxearen zimentazioa (esleipena: 1996ko iraila): 6 milioi pezetatan egin da obra, hau da, esleipen prezioa baino ehuneko 49 garestiago. Gorabehera hori 1997ko apirilaren 30eko gobernu batzordean aztertu eta argitu zen.

3. Gaztetxearen egitura (esleipena: 1997ko abenduaren 1a): hasierako esleipenaren eta behin betiko ziurtagiriaren arteko aldea behar bezala justifikatu da. Obraren zenbatekoa 38 bat milioi pezetakoa izan da.

4. Bileretarako, tailerrerako, bulegoetarako, tabernarako eta biltegiarako zentro izateko udal eraikineko instalazio eta estalkiko obrak (esleipena: 1998ko irailaren 24a). 6 milioi pezetatan egin da obra.

5. Gaztetzeko estaldura-egitura (esleipena: 1998ko abenduaren 17a): prozedura negoziatua bidez esleitu zen; bi eskaintza jaso ziren eta biek gaintzen zuten lizitazio prezioa. Izandako negoziazioen ondoren, bere aurrekontua -3,5 milioi— doitu zuen enpresa bakarrari esleitu zitzaion. 1999ko aurrekontuari egotzi zaio obra.

Arestikoarengatik ikus daitekeenez, Gaztetxe-ko obra puskatan egin da. Horien esleipena egitean, ez da bete aplikatu beharreko legedia.

Aزتتutako laginaren ondorioz eta laburpen gisa, hauxe gomendatzen dio Ganbarak Udalari:

• *Udalak zorrotz bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienez: kontratazio-espedienteak eratzea, obra zuzendaritzan eta proiektu-esleipenean lehiakortasun-printzipioa aplikatzea, obraren jarraipena eta exekuzio-epeak kontrolatzea.*

• *Ekidin egin behar du presako prozedura horrenbeste erabiltzea.*

• *Dagoeneko erabiltzen ari diren obraren onarpen-akta egin eta bukatzeko eskatu behar du.*

• *Ekidin egin behar du obrak puskaka egitea, horrek araudiaren aurka egin eta fondo publikoen kudeaketa desegokia ekar baitlitzake.*

## VI.6. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Zenbait alderditan, aipatzen ditugun gomendioak dagoeneko ezarrita daude, edo 1999ko ekitaldian zehar ezartzekotan daude.

### VI.6.1. Antolamendu orokorra

Udalak ondoko neurriak hartu beharko lituzke:

• *Arlo ekonomikoa eta kontabilitatezkoa osorik berraztertu eta berrantolatzea, Udalak hura modu eraginkorrean erabil dezan. Testuinguru horretan, udal kontuhartzailearen lanpostua bete eta hari barne kontrolari buruzko eginkizunak ematea; izan ere, arlo horretako erantzulea izan da kontuhartzailea.*

- *Udalaren egitura aztertzea. Azterketa horrekin egiaztatu beharko da ea egitura hori udal kudeaketaren beharretarako egokia den. Bide horretan, aztertu beharko litzateke kudeaketa arloetan oinarritutako antolamendu egitura bat ezartzea.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat ezartzea. Horren bidez Udalaren organo exekutiboen artean eskumenak zehaztu eta banatu beharko dira, bai eta erakunde autonomoekin izan beharreko harremanak ere.*

- *Kontabilitatean eta aurrekontuetan eragiten duten ekintza guztiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:*

a) *behar bezala baimenduta egonen dira.*

b) *Kontabilitate-dokumentu baten bidez behar bezala bermatuta egon behar dute, exekuzio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.*

c) *Behar den justifikazioa izan behar dute, eta fakturak izanez gero, behar den ikusonespena izan behar dute.*

d) *kontu-hartzaileak horiek ikusita behar du.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gainean egin behar duen kontrola eta zaintza lanak behar bezala bermatuko duten prozedurak diseinatzea.*

### **VI.6.2. Inbentarioa-ibilgetua**

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskritu-eratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditza ten Udalaren ondasunak.*

### **VI.6.3. Diruzaintza**

- *Hilero egitea banku-berdinkatzeak.*

### **VI.6.4. Bestelako gastuak**

- *Gastuen printzipioaren arabera ez, baizik eta sortzapen printzipioaren arabera erregistratzea finantza-gastuak eta alokairuetakoak.*

- *Aurrekontuan dagozkien kapituluetan erregis-tratzea gastuak, euren izaerari jarraikiz; nabarmentzekoa da dirulaguntzak gaizki erregistratzen direla gastuen 2. kapituluan.*

### **VI.6.5. Tributu-dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak**

- *Dirusarreraren kudeaketaren ondoriozko datuak eta dirusarrera horien kontabilitate-erregis-troko eta dirubilletako datuak adostu eta alderatze bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta sistematikoki aplikatzea. Helburua da:*

a) *Egungo sistemak eskatzen duen administrazio lana gutxitzea.*

b) *Isunen kobrantza hobetzeko sistema diseinatzea, horiek preskribitzeagatik ez-ordaintzea ekidinez.*

c) *Tasa eta prezio publikoen kostuei buruzko azterlanetatik ateratako ondorioak aplikatzea.*

d) *Gastuen printzipioaren arabera ez, baizik eta sortzapen printzipioaren arabera erregistratzea dirusarrerak.*

### **VI.6.6. Agentzia exekutiboaren zordunak**

- *Agente betearazlearekin kontratu baten bidez egoera formalizatzea eta behar den fidantza sar-tzeko eskatzea.*

### **VI.6.7. Bestelako dirusarrerak**

- *Behin betiko kitapenarekin batera erregistratzea hirigintza-aprobetxamenduei dagozkien diru-sarrerak.*

### **VI.7. "2000 EFEKTUA" ETA EUROAN SARTZEA**

"2000 efektua" eta EUROan sartzea dela-eta, Udalak ekipo zein aplikazio informatiko guztiak ikuskatu ditu bere kanpo aholkularien bitartez. Horrela, bada, arazo hori aintzat hartu dute eta gerta zitekeenari aurre egiteko neurriak hartu dira. Udalaren ustez, berritze-kostuak eta afera horren inguruan gertatzen ahal diren gorabeherak ez dira adierazgarriak izanen.

### **VI.8. HIRIGINTZA**

#### **VI.8.1. Alderdi orokorrak**

Lizarrak 1996tik du Lurraldearen Antolamendurako Plan Orokorra. Gaur arte ez da haren aldaketa nabarmenik egin.

Ondoko laukian azaltzen dira lurraren sailka-pena eta bilkaera –horiei buruzko informazioa Antolamenduko planoetan sartu da.

Lurra (m <sup>2</sup> -tan)	1996ko ikuskapena
Hiri lurzorua	2.178.795
Urbanizagarri programatua	323.063
Urbanizagarri programatu gabea	85.726
Urbanizaezina	-

### VI.8.2. Finantza- eta ekonomia-azterlanak/Jarduketa programak

Jarduketa-programak, 1996ko txostenean agertzen zen legez, guztira 12 jarduketa aurreikusten zituen, bi laurtekoetan burutu beharrekoak, horien zenbatekoa guztira 1.906 milioikoa izanik: 984 milioi lehen laurtekoan (1995tik 1998ra) eta 922 milioi bigarreanean (1999tik 2002ra). Aurreikusitako jarduketak ondoko koadroan xehekaturik agertzen dira:

Jarduketa-zenbakia	Unitatea	Kontzeptua	Guztira (milakotan)
1	SGV	Trenbideko zubia	300.000
2	SGV	Fray Diego zubia eta lotunea	350.000
3	SGV	Volante-ko bidegurutzea	59.500
4	18	Merkatondoa urbanizazioa	157.500
5	5-2	El Puy urbanizazioa	164.500
6	6-2	Koartela	-
7	SGV	Santiago enparantza	79.000
8	SGV	San Agustin bidegurutzea eta aparkalekuak	52.500
9	11	Kultur parkea	200.000
10	SFZV	Los Llanos parkea	450.000
11	20-7	Igerilekua	50.000
12	SGV7	Cordeleros	43.300
Guztira			1.906.300

Ez da finantza- eta ekonomia-azterlanei eta jarduketa programen betetze-mailari buruz bera-riazko jarraipenik egin idatziz.

Zerbitzu teknikoaren emandako informazioaren arabera, 7 zenbakiko jarduketa bukatuta dago, eta 9 eta 12.ak hasita. Jarduketa programaren betetze-maila, hortaz, apala da.

Finantziazio-iturriak honakoak dira: Nafarroako Gobernuaren eta Kultura Ministerioaren transferentziak, kontribuzio bereziak eta Udalaren baliabideak. Ez da zehazten, ordea, bakoitzak zenbat jartzen duen.

### VI.8.3. Planeamenduaren garapena eta betetzea

Ekimen pribatua da hasiera batean planeamendua sustatu eta gero bultzatu edo baldintzatzten duena, batez ere hirigintza hitzarmenen bidez.

Planeamenduaren garapena unitate bakoitzari buruzko hirigintza araudian biltzen da. Honakoak dira, batik bat, exekuzio prozedurak: birzatiaketa edo konpentsazioa, urbanizazio proiektua –halakorik behar izanez gero– eta xehetasun azterlana.

Planeamendu-aldaketak direla-eta, hauxe nabarmendu behar dugu:

- 1996tik aitzina egindako aldaketen zerrenda eman zitzaigun, eta bertan ikusten da guztira 5 aldaketa-espeditente egin direla.
- Espeditente horietan jasotzen diren agiriak direla-eta, horien euskarri bakarra hirigintzako txosten teknikoak da, eta ez da jasota ageri ekonomia-, lege- edo kontuhartzaitetza-txostenik.

Lurraren jabeekiko hirigintza-hitzarmenei dagokienez, administrazio espeditenteetan ez da jasota ageri horien testua baizik, eta ez dago informazio osagarririk dokumentazioari, balioespenerari, lagapenei eta kontraprestazioei buruz.



#### VI.8.4. Kontabilitate- eta hirigintza-obligazioak

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarea eratu; ondare horren bidez lortu diren dirusarrerak ez daude formalki lotuta ondarea kontserbatu, mantendu eta zabaltzeari.

#### VI.8.5. Hirigintzaren kudeaketa

Udalak hirigintza arloko teknikariak ditu plantillan, eta beraz, hirigintza planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoak udal ekipoak egiten du.

Azkenik, aurreko iruzkinak aztertuta, hona gure gomendioak:

- Oro har, ezarritako hirigintza-betebeharrak betetzea.
- Azterketa ekonomiko-finantzarioen eta Jardu -keta Programen betetze-mailaren jarraipen egokia egitea.
- Garapen tresnen eta planeamenduaren exekuzioari buruzko artxibatze-sistemak eta kontrol erregistroak hobetzea.
- Hirigintzako espediente administratibo orok ondokoak egiteko behar den dokumentazioa jaso behar du:
  - a) Garbitasuna eta publikotasuna bermatzea.
  - b) Erabakiak hartzeko behar diren txosten tekniko guztien bermea izatea.
  - c) Interes publiko edota soziala behar bezala justifikatzea.
- Hirigintza-espedienteak izapidatzerakoan, Udalaren barne kontroleko zerbitzuek —idazkari-tza eta kontu-hartzailtza— dauzkaten eginkizunak zehaztea.
- Horretarako aukera dagoen neurrian, hirigintza jarduketako programaren exekuzioa azkartzea.

### VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Lizarrako Udalak gaur egun honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- Musika Patronatua.
- Kirol Patronatua.
- Gizarte Ongizateko Patronatua.
- Almodí Kultur Zentroko Patronatua.

Musika Patronatua -30 milioi inguruko aurrekontua du- alde batera uzten baldin badugu, beste hiru patronatuetan kudeaketa udal zerbitzuetatik egiten da, eta gastu eta dirusarreraren

aurrekontu-kontsignazioak Udaleko aurrekontuan sartuta daude. Ez dute jarduten indarreko araudiaren arabera eduki behar duten nortasun berekiarekin. Ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

*Kirol, Gizarte Ongizate eta Almodí Kultur Zentroko Patronatuen gaur egungo egoera aztertu eta argitzea, horiei araudian eta estatutuetan aurreikusitako autonomia emateko edo horiek desegitea eta euren jarduera udal zerbitzuek beraiek bereganatzea erabakitzeke.*

#### VII.1. JULIAN ROMANO MUSIKA PATRONATUA

Julián Romano Musika Patronatuak 22 milioi pezetako obligazio aitortuak eta 20 milioi pezetako eskubideak ditu 1998an. Aurrekontu-emaitza, hortaz, -2 milioi pezetakoa da. Ondoko koadroetan, zenbateko horiek zehazten dira, izaerra ekonomikoari jarraikiz.

Dirusarrerak	(milioitan)	
	Zenbatekoa	Portzentajea
Matrikulak eta jasoagiriak	13	65
Bestelako dirusarrerak	1	5
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	4	20
Lizarrako Udalaren dirulaguntza	2	10
Guztira	20	100
Diruzaintzako gerakina	5,5	

Gastuak	(milioitan)	
	Zenbatekoa	Portzentajea
Langileak	14,5	66
Funtzionamendua	7,5	34
Bestelako gastuak	0,1	0
Guztira	22,1	100

Ikus daitekeenez, gasturik gehiena langileen kapituluan metatzen da -gauza logikoa, bestalde, eskolak emandako zerbitzua zein den kontuan hartuta-. Dirusarrerei dagokienez, zentroak sortutako baliabideek aurrekontuaren ehuneko 70 egiten dute. Gainontzeko ehuneko 30erako, kanpo finantziarioa -dirulaguntzen bidezkoa- behar du, hala Nafarroako Gobernuarena nola Lizarrako Udalarena.

Eskolak halako langileak zituen 1998ko bukaeraren aldean:

Langileak	Finkoak	Aldi baterakoak	Guztira
Irakasle	10	2	12
Ez irakasle	-	-	-
Guztira	10	2	12

Behin-behineko bi langileek lanaldi partzialeko kontratua dute.

Administrazio lanak Udaleko funtzionario batek egiten ditu, eta horregatik ez da sartu aurreko koadroan. Zerbitzu horren kontabilitate-islak zenbateko bera dakarkio gastu eta dirusarreretan Udalarari. Hori 4. kapituluaren –“transferentzia arruntak”– erregistratzen da, nahiz eta berez ez dagoen fondoan mugimendurik. Udalaren partetik jasotzen den transferentzia bat dator pertsona horregatik egindako gastuaren zenbatekoarekin.

Patronatuaren aurrekontuaren kitapena aztertu ondotik, hona gure gomendioak:

- *Udalak –Musika Eskola bere menpe duen entitatea den aldetik– zaintza, kontrol eta aholku-larritza lanak egitea.*

- *Obligazioak edo eskubideak berekin ekartzen dituen ekintza oro kontuhartzaitzaren edo barne kontrolaren eskutik pasa behar da.*

- *Aurrekontuei dagokienez:*

a) *Aplikatzaren diren ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira.*

b) *Eskolaren gastu eta dirusarrera guztiak jaso behar dituzte.*

- *Kontabilitate- eta aurrekontu-sistemari eta haien gauzatzeko prozedurari dagokienez, egun-go funtzionamenduak agerian uzten ditu ondoko gomendioei jarraitu behar zaiela:*

a) *Kontabilitaterako programa Eskolaren kudeaketa behar errealetara egokitzea.*

b) *Aurrekontu-aldaketa guztiak organo eskudinak onetsi behar ditu.*

c) *Gastu guztietarako alde aurretiko baimena behar da.*

d) *Gastuak jatorri ekonomikoaren arabera egozteko aurrekontuari.*

e) *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren irizpideari jarraituz kontabilizatzea, hau da, gastuak eta dirusarrerak horiek gertatu diren ekitaldiari egozteko, eta matrikuletako dirusarreraren erregistroa bereziki aipatzea.*

f) *Balantze-saldoak sistematikoki berraztertzea.*

*Labur bilduz, presakoa da behar diren aldaketak egitea Musika Patronatuaren kontabilitate-tratamenduan, kontabilitatea kudeaketaren tresna bat izan dadin eta ez burokraziaren mekanismo hutsa.*

- *Langileei dagokienez:*

a) *Plantilla organikoa urtero-urtero onetsi eta argitaratzea, hura baita langileen eskuragarritasuna eta beharrak agertzen dituena, aplikatzekoak diren osagarriak eta guzti.*

b) *Nominak eta langileen kudeaketa dela-eta dauden betebeharrak kanpoan egiten jarraitzea komeni den ala ez aztertzea. Horiek kanpoan egiten jarraitzen bada, harreman hori behar den kontratuaren bidez erregulatzea; betiere, alde aurretik behar den hautapen-prozesua egin beharko da.*

c) *Nomina non egiten den alde batera utzita, komenigarria eta exigitu beharrekoa da langileei buruzko espedienteak edukitzea eta nominak eta haien erregistroa aldiro-aldi alderatzea eta egiaztatzea.*

d) *PFEZko atxikipenak behar bezala aplikatzea langileen nominetan eta PFEZren aitortzen bakarria egitea langile guztientzat, dedikazio orduak alde batera utzita.*

- *Aldiro, kontabilitateko eta diruzaintzako adostekak egitea, egoki diren kontaktak eta banku-berrindikatzeak eginez, beharrezkoa balitz.*

- *Ekitaldian indarrean dauden ordenantzak aplikatzea.*


- *Eraikina garbitzeko zerbitzuaren enpresa hartzailearekin egin beharreko kontratua egitea.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako irizpideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**1. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1998-12-31N**



F= Funtzionarioak  
 LAAB= Lan kontratupekoa, aldi baterakoa  
 LAFLP= Lan kontratupekoa, finkoa, lanaldi partzialekoa  
 LAABLP= Lan kontratupekoa, aldi baterakoa, lanaldi partzialekoa  
 (Z.B.)= Zerbitzu bereziak, M.A.M.en  
 (Esz)= Eszedentzia

**II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Dirusarreraren betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Gastuen betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Kobrantzen betetzea = 
$$\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Ordainketen betetzea = 
$$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Zorpetze maila = 
$$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$$
- Zorpetzearen muga = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Langileen indizea = 
$$\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Inbertsio indizea = 
$$\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna = 
$$\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Dirusarreak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastuak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastu arruntak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = 
$$\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Finantza-zama biztanleko = 
$$\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$